

PuLunPe

164. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



OLERKIA

Emakume zuzenak,
okerrak, kirtenak,
moja txintxoak eta
zerrama irtenak,
itsusiak, politak,
atletak, herrenak:
konplize ditut eta
maite ditut denak.

Langileak, alferrak,
lanik ez dutenak,
tuntunak, mediokreak,
klaseko lehenak,
ale desegokiak,
andre txit gorenak:
konplize...

Ama onak ta txarrak,
ama ez direnak,
lurrera jausi arte
mozkortzen onenak
ta umeen merienda
usaina dutenak:
konplize...

Lotsatiak, ausartak
argalak, gizenak,
iletsuak, soil-soilak,
marimutilenak,
katemeak, gorilak
panterak, zezenak:
konplize...

Lehen munduko emeak,
kapitalistenak,
lur usaia daukaten
andre indigenak,
zuri, gorri, horiak,
beltzetan beltzenak:
konplize...

Markesaren alabak,
neskame gizenak,
printzesak ta sorginak,
ogroak, sirenak,
Maritxuak, Bartolo
itxura dutenak:
konplize...

BERTSOA
UXUE ALBERDI



EDITORIALA

Basaburuan eta Imotzen erabaki dute



E kainaren 18an izan zen, Gure Esku Dago dinamikak antolatuta, gure herriaren etorkizunaren inguruko galdeketa. Esan dezakegu aspaldiko ekitaldirik parte-hartzaileena izan dela, eta ez inoiz baino boto gehien eman direlako, bai zik eta antolaketa ere parte-hartze boluntarioaren bidez izan delako.

Nafarroako "lehenengo olatua" deitu diote, beste olatuen zain. Muga bat marraztu du momentuz, baina kontrakoa proposatzen dute antolatzaileek, "harresiak apurtzea", "libreki iritzia eman eta erabakia hartzea". Imotz eta Basaburua batu zaizkio Nafarroako lehenengo olatu horri, eta hortik hegoaldera eta ekialdera ez da bozketarik izan, gu-rean ere ez da bailara gehiagorik batu. Baina hori da Gure Esku Dago dinamikako kideen esperantza.

Erasoko Alazne Fernandez de Muniain eta Beramendiko Olatz Doray izan genituen irratian bozketaz hitz egiteko. Haiekin batera bi bailaretako alkateak izan genituen, Joxean Iturralde eta Esther

Lakasta. www.ametza.eus webgunean entzungai duzue lauren artean izandako tertulia.

Hilabetetako lana egin dute Alaznek eta Olatzek beste hainbat biztanlerekin batera bozketa gauzatu zedin. Lantaldeen sorrera, bilerak, bozketa aurreratua herriz herri, eta ekainaren 18ko bozketa. Herritarren parte-hartzea nabarmendu dute, bai antolaketan bai bozketan, nahiz eta bailara haue-tan parte-hartze altua izateko zailtasunak izan. Beraz, oro har, balorazio positiboa egin dute kanpaina guztiarena.

Alkateek ere positiboki baloratu dute. Eskertuak sentitzen dira egindako lanagatik, eta udalen babesa azpimarratu dute, eta baita erabakitakoa bere hartzeko asmoa. Haien botoa aitortu ziguten bi alkateek, eta baiezkota izan zen bi kasuetan. Galdeketa-aren inguruko erreportajea daukazue datoz-en orrialdeetan.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO

ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

Emaila: pulunpe@gmail.com

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil eta Iosu Martinez.

Azala: Beñat Agirre

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U

Lege gordailua: NA 721/93

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

SANFERMINETAN ERABILI AUTOBUSA!

Uztailak 6 (osteguna) / 6 de Julio (jueves)	
09:30h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
13:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
15:20h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
19:40h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
Uztailak 7 (ostirala) / 7 de Julio (viernes)	
01:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
06:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
09:30h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
13:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
15:20h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
19:40h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
Uztailak 8 (larunbata) / 8 de Julio (sábado)	
01:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
06:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
09:30h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
15:20h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
19:40h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
Uztailak 9 (igandea) / 9 de Julio (domingo)	
01:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
06:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
09:30h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
15:20h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
19:40h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
Uztailak 10 (astelehena) / 10 de Julio (lunes)	
01:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
06:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
09:30h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
13:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
15:20h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
19:40h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona

Uztailak 11 (asteartea) / 11 de Julio (martes)	
06:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
09:30h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
13:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
15:20h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
19:40h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
Uztailak 12 (asteazkena) / 12 de Julio (miércoles)	
06:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
09:30h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
13:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
15:20h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
19:40h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
Uztailak 13 (osteguna) / 13 de Julio (jueves)	
06:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
09:30h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
13:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
15:20h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
19:40h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
Uztailak 14 (ostirala) / 14 de Julio (viernes)	
06:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
09:30h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
13:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
15:20h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
19:40h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
Uztailak 15 (larunbata) / 15 de Julio (sábado)	
01:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona
06:00h	Iruña/Pamplona – Ultzama – Iruña/Pamplona

Oharra: Gauko ordu bateko iteera irufetik, autobus geltokiko errefortzurako kalen izanen da.
 Nota: La parada de la salida de la una de la madrugada de Pamplona será en dirección de refuerzo de la estación de autobuses.



IRAKURLE TALDEAren oharra:

Irailean berrartuko dugu Irakurle taldea eta hasiko gara bi liburu hauekin: "Purga" (Sofi Oksanen) eta "En un lugar del Atlántico" (Fator Diomé). Biak daude jadanik liburutegian eta nahi duzunean nahi duzuenak (taldea irekia da) etorri zaitezke liburutegira hartzera. Udako ordutegia 10:30etatik 13:30etara da.



Goienetxe Anaiak
Erraietatik

GOIENETXE ANAIK TALDEAK ABESTI BERRIAREKIN IRAGARTZEN DU UZTAILAREN 11AN KONTZERTU BERRIA ESKEINIKO DUTELA SANFERMINETAN, ZALDIKO MALDIKO. ABESTIA INTERNETEN ENTZUNGAI.

15 dias

Hip-hip y Hip-



"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak...
ZATOZ DINAMIZAZIO BATZORDERA!
 Hilabeteko lehengo ASTEARTETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitetz!
 Email bidez informazioa jasotzeko: kulturamugil@gmail.com"

euskara
bizirik




Bertsoa.eus

BERTO BERRIAK
PLAZA BERRITUAN!

"Bertsoaren muina transmititzea da"

Plaza garbiko bertsoaren inguruan elkarrekin elkarrekin bertsoak ematen diren momentuak. Bertsoaren muina transmititzea da, bertsoaren muina transmititzea da.



Argazki txapelketako irabazleekin berriketan

Ametza elkarteak hirugarren aldiz antolatutako eskualdeko argazki txapelketa bukatu da jada. "Pozik" daude Pulunpe aldizkaria eta Esan Erran irratia kudeatzen duten kultura elkarteko zuzendariak. Partaidetza altua izan da eta argazkien kalitatea ere azpimarratzekoa. Hemen dituzu hiru lehenengo sailkatuei egindako elkarrizketak eta baita saritutako argazkiak ere.



ALFREDO GARCIA-FALCES LARRAÑETA, LIZASOKOA



"Albokaria" argazkiarekin aurtengo lehiaketako irabazlea izan da Alfredo. Galdera batzuk egin dizkiogu.

Azaldu ezazu argazkia

Lizasoko Mikel Larrayoz albokariaren lehen plano bat da zuri-beltzean, Orgiko basoan, Aisiarako Naturgune honen XX. urteurreneko ospakizunetan, 2016an. Argakia Lizasoko instrumentista batzuek eman zuten kontzertu hunkigarri batean egin nuen.

Zer adierazi nahi duzu irudi horrekin?

Argaziak nabarmendu nahi du albakaren antzinako eta tradiziozko izaera, maila baxuko zuri-beltzaren bitartez, non atzealde ilun batean nabarmentzen den instrumentua ez ezik musikariaren bisaia ere jotzen duen bitartean (oso bereziak, etengabe sudurretik arnasa hartu behar izaten baitu instrumentuan airea sartzen duen bitartean ahoa bera gaitaren sabela edo hauspoa balitz bezala).

Noiztik duzu argazkilaritzarako afizioa?

Aitak kutsatu zidan argazkiaren zaletasuna txikitatik, eta haien makinak erabiltzen uzten zidan.

Hamasei urterekin erosi nuen nire lehen reflexa (bigarren eskukoa); hemezortzirekin, nire lehen soldataz, Nikon f3 bat erosi nuen, garai hartan punta-puntakoa zena, eta gaur egun etxeko egongelan dago apaingarri gisa. Baina, argazki digitalerako pausoa emateko erabakia 2010ean hartu nuen, nire emazteak kamara berria erosi zidanean, eta geroztik ez diot argazkiak egiteari utzi.

Zer gustatzen zaizu argazkietan agertzea?

Nire pasioa naturako argazkia da (paisaia, landaretza, animaliak...), mendian galtzea nire kamarekin. Hala ere, Lizasoko jendeari argazkiak egitea ere gustukoa dut, eta ia urtero film txiki bat (maker movie) egiten dut, herriko bestetan proiektatzen dut, eta bertan herriko bizimodua azaltzen dut (bestak, iyoteak, auzolanak...).

Ultzaman edo inguruan ateratako zein argazki gustatzen zaizu gehien?

Lizasoko jendeari egiten diedan argazkiak aparte, benetan gozatzen ari naiz Ultzamako erreketan eta ibaietan egiten ari naizen argazki sorta batekin.

Zer behar da argazki on bat ateratzeko?

Topikoa iruditzen bada ere, argazki onak egiteko lehenik eta behin horiek egiten gozatu behar da. Gehiago gozatzen dut bidearekin helmugarekin baino. Argazkiarena diziplina konplexua eta garestia da. Emaitza onak bilatuz gero, etsigarria ere izatera ailegatzen ahal da. Beraz, nire aholkua da argazkia ez du helburu izan behar baizik eta aitzakia etxetik ateratzeko eta jendearekin eta inguru-nearekin harremanetan jartzeko.



HIRUGARREN SARITUA: "GOAZEN" IZENBURUAREKIN.
EGILEAREKIN ELKARRIZKETA HURRENGO ORRIALDEAN

XABIER ARRARATS ARANGO, BERUETEO
GARAIIKOKOA

Bigarren sailkatua izan da Xabier. "Hirukiak" argazkia da berak egindakoa.

Azaldu ezazu argazkia, zer da?

Hiru behor dira argazkian ateratzen direnak, Biuteko lontan.

Zer transmititzen dizu argazki horrek, edo zer da zuk transmititu nahi duzuna?

Animalien garrantzia da transmititu nahi dudana, historian zehar gizakiaren bide-lagun garrantzitsua izan baita.

Baduzu argazkilaritzarako afizioa? Noiztik?

Telefono mugikorra poltsan nuenetik, mendi edo azinda irteeretan argazkiak ateratzea gustuko dut.

Zergatik argazkia ganaduari?

Txiki txikitatik inguruan dudana da ganadua, eta bera da pasioetako bat.

Nolako litzateke egin zenezakeen argazkirik onena?

Ez dut uste argazki "onena" dagoenik, denak dira bereziak. Hori bai, mendia edo ganadua agertzen den bitartean.



JOSU MARTINEZ, HIRUGARREN SARIAREN IRABAZLEA,
"GOAZEN" ARGAZKIAREKIN

"Mobilek argazkilaritzaren egunerokotasuna eraldatu dute"

Artzaina laguna da, Alkotzen bizi naiz eta alboko etxean bizi da. Normalean ikusi ohi dut bideetatik lanean. Behin esan nion argazki batzuk egin nahi nizkiola eta hurrengo egunean elkartu ginen. Pare bat argazki egin eta listo!

Argazki asko egiten ditut baina hauek, zehazki, berarendako egin nituen. Atera ziren bezala gustuko izan eta txapelketan aurkeztea erabaki nuen. Ardiak eta animaliak asko maite ditut nik eta askotan paisaiei ere ateratzen dizkiet argazkiak, hemen oso eskura ditugu!

Hemengo ohiturak eta ogibideen testigantza ematea ere gustuko dut, aspaldi egiten ziren bezala orain arte mantendu direnak. Artzain bizitza erraza ez bada ere, hemengo artzainek haien lana maite dute: bizilaguna jubilatzeke zorian badago ere, ikusi beharko zenuke


zeinen ongi zaintzen dituen ardiak, denak latxak dira.

laz lehenengo eta bigarren geratu nintzen eta aurretik hirugarren, ikusten da afizioa dudala... kar kar. Egia esan, gaur egun mobilek argazkilaritzaren egunerokotasuna eraldatu dute. Inor ez darama kamera soinean, baina guztiok telefonoa daramagunez, ba halako argazki "kasualak" telefonoekin egiten ditugu. Nire kasuan kamera "profesionala" oporretan eta halako egoera berezietan erabiltzen dut, eta eguneroko irudiak egiteko, mobila. Kamera handiarekin aurretik pentsatua duzun argazkiaren bila joan behar duzu.

Orokorrean hitz eginda, nik uste positiboa dela sakelakoen eragina argazkilaritzan, behintzat eremu batean: ezin zara leku guztietara halako kamera handiarekin joan, eta esango nuke gaur egun inoiz baino argazki gehiago egiten direla.

LAUGARREN SARITUA:

"ALKOZKO BORDAK"



Tornaria, zurrumbiloaren erdian, **ikerketa** komisioa aurrera baina motel, eta beste gupil zoro interesgarri batzuk



Tornaria eta Perez.

Ekaina hilabete mugitua izan da “Ultzama kasuan”. Nafarroako hedabideek hala bataiatu zuten Irazozko bionergia plantaren inguruan sortutako irregulartasunak ezagutu zirenean. Uda ailegatu zaigu eta mahaia gainean ildo interesgarri zenbait ditugu.

Tornaria, zurrumbiloan

Aritz Intxusta kazetariak Kontu Ganberako txostena ikertzen ari zela justifikaziorik gabeko diru-laguntza bat aurkitu zuen. 2012. urteko kontua da hau, eta biogasa sortzeko nanopartikula proiektu batzuekin du erlazioa. Milioi erdi euroko mailegu hori ez zen justifikatu ezta itzuli ere. Kredituaren zati txiki bat Bioenergia enpresara joan bazen ere, zati handiena Tornariaren enpresa batera joan zen.

Txostenari aurkeztutako alegazioetan, alkate gisa hitz egiten zuen Tornariak eta aipatzen zuen ez zekiela nola gauzatu zen proiektu hori. Garako kazetari den Aritz Intxustaren iritziz “harrigarria da oso entzutea bere enpresari egotzitako proiektu bat gauzatu zen edo ez ez jakitea”.

Ultzamako alkate ohiarekin hitz egin dugu, eta salaketa guztiak ezeztatu ditu: “2014. urteko uztai-lean nire enpresak diru-laguntza horrekin zerikusia zuen konpromisoak bete zituen”, halere, bertan kontseilari bazen ere “ez dakit zer egin zuen Bioenergiak” aipatu zigun.

Ailegatzen ez diren demandak

Maiatzaren hasieran AU udal taldeak “berehalako salaketak” iragarri zituen komunikabide eta sare sozialetako erabiltzaileen aurka. Patxi Tornariare-

kin izandako azken elkarrizketan berak ere gauza bera esan badu ere, errealitatea da momentuz ez dela salaketa judizialik jaso.

Gara eta Diario de Noticias hedabideek ez dute oraindik ezer jaso, ezta Pulunpe aldizkariak ere. Guk dakigula sare sozialetan ere ez da inongo demandarik jaso.

Ohorearen aurkako demandak jarriko direla esatea beti geratzen da oso “garbi”, kontua da gero epaiketetan frogatu behar direla gauzak...

Ikerketa Komisioa, paperak eskatzen

Nafarroako parlamentuko ikerketa komisioa hasi da jada, eta informazio eskaerak egin dira. Udako oporrak erdian daudela, baliteke informazio gehiegirik ez egotea iraila arte. Halere, azken asteetan berriro atzera bota dute UPNren saiakerak ikerketa oztopatzeko. Diario de Noticiasek argitaratu zuen AU udal taldeak ezbaian jarri zuela Nafarroako Parlamentuaren ahalmena kasu hau ikertzeko.

Eta dirua itzuli beharko da?

AU alderdiaren argudioetako bat da “ultzamarrek ez zutela dirurik jarri behar izan planta egiteko” baina gaizki kudeatutako diru-laguntzak itzuli behar badira, ultzamarrek, berandu, baina dirutza ordaindu beharko dute. Ekainarekin bukatzeko, oraingo alkatetzatik komentatu digute abeltzainekin bilduko direla heldu diren asteetan.





Esan Erran irratiak **udako** programazioa aurkeztu du

Uztailaren 3tik aurrera “Egun-Ero” irratsaioak oporrak hartuko ditu



Eskolako ikasturteaz harago, badaude antzeko egutegia jarraitzen dutenak ere. Esan Erran irratiaren kasua antzekoa da, eta udan ez dute zuzeneko irratsaioerik egingen.

Astelehenetik ostiralera goizeko hamarretatik hamaikak arte emititzen den irratsaioaren ordezkari, irratiak kazetariak udako programazio berezia prestatu dute. Arrosa sarearen parte da Esan Erran, eta irratsaioen elkartrukatzean oinarritzen da talde hau. Euskal Herriko euskarazko irratiaren talde honen irratsaio tematikoak entzungai izanen dira: Iruñeko Eguzki irratiak, Gazteizko Hala Bedi, Bilboko Bilbo Hiria, iparraldeko Antxeta irratiak, Info7 irratiak... ikasturtean emititu dituzten saioak entzungai izango ditugu.

Udan, askotan, lasai eta patxadaz egoteko garaia denez, euskal musika “lasaia” ordu askoz entzungo da, batez ere goizetan. Arratsaldean, aldiz, mundu osoko musika tropikalak protagonismoa hartuko du: igerilekuan edo etxean musikaz gozatzeko. Gauetan, euskal musikak eta jazzaren arteko nahasketa berezia izango duzue. Gogora ezazue, dialaren 107.9an Esan Erran irratiak aurkitu dezakezue. Irratitik aipatu digute zerbait berezia gertatzen bada zuzenean emitituko dutela.

Nafarroari buruz 39 idazle **euskaraz**



Ane Ablanado, Jon Abril, Xabier Agurruza, Leire Alonso, Ipar Alkain, Aurelia Arkotxa, Tania Arriaga, Jose Luis Asensio, Iñigo Astiz, Josetxo Azkona... Pertsona horien guztien abizena “a” letraz hasten bada ere, badaude beste zerbait komunean ere: guztiek liburu berdinean idatzi dute, baina ez dira haiek bakarrik, osotara 39 baitira. Eskualdekoak badaude ere, Iñigo Astiz, Tania Arriaga eta Iñigo Ibarra.

Azken honek azaldu digu Pamiela argitaletxearen egitasmoa dela: “Fertxu Izquierdo idazlea ibili da koordinatzaile lanetan Jose Angel Irigarai Pamielako editorearekin batera”. Argitaletxetik aipatu dute 2016an egungo nafar narratibaren lan bat aurkeztu zirela, “bertan, erdal ikuspegitik egin zenez, euskarazkoa bi idazleren lanekin ordezkatzeko; hots, indarrean dagoenari jarraiki, marginaliako literaturgintza gisa, erabat gutxietsia.

Baitezpadakoa zen, beraz, euskarazko nafar narratibaren berri eman zezakeen beste ekimen bat abiaraztea”.

Idazle askorekin jarri ziren kontaktuan eta erantzuna oso positiboa izan zen, “ia erabatekoa izan zen, oso baikorra”.

Emaizta liburu hau da, literaturgintzan egun diharduten 39 nafar idazleen lagin zabal eta joria. Odietako Iñigo Ibarra kontatu digu antolatzaileen asmoa “Nafarroan euskaraz idazten dugun pertsonen lagin ahalik eta zabala osatzea zen.

Hartarako, gai modura, modu “sinbolikoan” bada ere, Nafarroa modu batera edo bestera aipatzea ipini ziguten eta erantzuna ederra izan da, 39 idazlerekin osatutako lana!”.

Baduzue, beraz, udarako irakurketa aukera ederra!

Nafarroako Gobernuaren, Basaburuaren eta Imotzen arteko **akordioa** Udalen Plan Orokorrak diruz lagunduko dira



Ekaineko azken astean argitara eman zen akordioaren sinadura. Gobernuak 10 udal diruz lagunduko ditu haien Plan Orokorrak aurrera eramateko, horien artean Basaburua eta Imotz. Argitara eman dutenaren arabera, “bi bailara hauek lurralde eremua mantentzea bilatzen da”, orain arte, modu sostengarri batean nahastu direlako gizartea, eremua eta ekonomia.

Basaburuko kasuan planaren aurrekontua 90.000

eurokoa da eta 72.000ekin lagunduko da, eta Imotzen 75.000tik 60.000 jarriko ditu Gobernuak.

Zenbait helburu lagunduko dira, “populazioaren inplikazioa” bilatzeko. Ingurumenarekin zerikusia duten proiektuak garatuko dira, baita ere Latasta, eta Urritzan ibaiak gainezka egiten duenean gune horiek nola kudeatu aztertzeke lan egingo da.

Ultzamako iruzurraren kasua: Fiskaltzak kartzela zigor luzeak eskatu ditu akusatuentzat.

Datuak ez dira nolanahikoak, gogora ditzagun: 12 milioi euro desagertu ziren, 50 kaltetu inguru (behintzat publiko direnak), 20 urteren bueltan gertatutako mugimenduak...

Orain epaitegietan daude. Fiskalak Miguel José Olagüe Roncali 8 urte kartzela zigor eskatzen dizkio eta bere alabei bosna bakoitzari. Kalte-tuei dirua itzultzeko, epaileak Olagüek zituen aseguruak eskatzen die erantzukizuna.

Fiskaltzak argi ikusten du hogei urtez jendea Olagüerengana joaten zela eskaintzen zituen interes altuak zirela, eta “askotan diru kantitate altuak ziren zabor poltsetan ematen zirenak”.

Diario de Noticias egunkariak argitaratu duen arabera, 1992. urtetik aurrera Olagüe jauna bezeroak jasotzen zituen, batzuei lehendik ere finantza-aholkularitza lanak egiten zizkien. Gogora dezagun Nafarroako piramide motako iruzurrik handiena dela.





Axolagabekoen antzerkia: Aurten Agatha Christie



Urtero legez ekaina ailegatzean eskualdeko antzerki taldeak haien lana aurkezten dute. Aurten hiru aldiz egin zuten antzezlan, ostiral eta larunbatean. Taldeko Begorekin hitz egin genuen eta “oso pozik” daudela esan zigun: “Aurten misterio antzerkia aukeratu genuen, Agatha Christieren “3 ratones ciegos”. Obra luzea da, ordu eta erdiko iraupena duena. Ikusle bati galdetu diogu eta esan digu “azkar” pasa zitzaiola.

1953. urtetik hona New Yorken antzezten dute, etenik gabe, “gaur egungo antzezlanik zaharrena da, estreinatu zutenetik ez dute gelditu”. Misterio antzezlan honetan, hiltzailea aurkitzeko musikaren papera oso garrantzitsua da, txikiendako abesti oso ezagun bat erabiltzen baitu. Beti bezala, antzerkia modu “etxeokan” egin dute Axolagabekoek: “Etzetik ekarri dugu atrezzo eta Gerendiaingo lagun batek ekarri dizkigu etzetik altzairuak”. Ikusi beharko dugu zer prestatzen duten heldu den urterako, baina aurten oso gustura ibili badira ere, “oraindik gogoratzten dugu pasa genuen beroa”.

Gartxenia ostatua saritu dute “gazpatxo zuri” batengatik



Larraintzargo Gartxenia ostatuko sukaldearen ospe ona handitzen doa. Txomin eta Koxkoren negozioak beste sari bat jaso du ardo gorria eta zainzuriak bartzuten sukaldaritza txapelketa batean. Koxkorekin hitz egin dugu eta aipatu digu “pozik” daudela jasotako saria dela eta.

Errezeta irabazlea oso interesgarria iruditu zaigu: gazpatxo zuria, udarako ideia polita. Hori bai, osagaiak bitxi xamarrak iruditu zaizkigu; zainzuriak, langostinoak eta topinambua. Bai, ongi irakurri duzu, topinambua. Hegoa-merikatik ekarritako tuberkulua dugu hau, orburuaren antzeko zaporea duena. Larraintzarra enkarguz ekartzen dute “Jerusalengo orburua” izenaz ezagutzen dena. Ez da erraza denda arruntetan erostea. Gartxeniako menuan sartu dute errezeta bitxi hau, baina zainzuri garaia pasatzen ari denez, joan zaitez azkar dastatzera!

Etxean prestatu nahi izanez gero, Koxkok gomendatu digu topinambua kentzea eta beste bi osagaiekin egitea gazpatxo. On egin!



Pejo Etxeberria debutatzeko zain

Asegarcerekin jokatu du Zenozko gazteak ETB-LEP.M txapelketa ekainean. Finalera pasatzea lortu zuen bere atzelari joko bikaina erakutsiz, eta puntu bakarra falta izan zitzaion berari eta bere bikoteari, 22-21 galdu zuten.

Uharteko taldean jokatzen du orain Peiok, 18 urte besterik ez ditu eta pilota profesionalean aritzeko aukera handia dauka. Gertutik jarraitu beharko dugu mutila.



Gaztanbera egileen begietatik



Badira egun batzuk Arraitzen Gaztanbera Eguna izan genuela. Irratian eman genizuen egunak emandakoaren berri, eta oraingoan, egun horren berri beste modu batez eman nahi dizuegu. Benta Migeleko Patxik urteak daramatza egunean parte-hartzen, ez soilik erakusketak egiten, baita egunaren antolaketan ere, izan ere beste hainbat bizilagunek elkarlanean antolatzen dute, eta berarekin hitz egin dugu.

Egin zuen bero handia azpimarratzen du Patxik, eta horrek agian jendea hondartza aldera eramán zuela dio, baina jende dezente egon zela. Artzain txabola-ren inaugurazioa, artzain txakurren erakustaldia, ile moztailak, ardi jezte, gaztanbera egite eta gazta egite erakustaldiak eta haurrentzako “Goshua master chef” proba.

Beraz, ardiak eta artzainak izan ziren protagonistak, egunero etxean egiten dutena erakutsi zioten jende-ari, eta polita dela dio Patxik, jendeak ezagutu dezan askotan jaten duten hori nola egiten den. “Master chef” probaren bigarren ekitaldiaren berri ere eman

digu Patxik, postre ugari egiten aritu zirela eta kanta bat ere egin zutela.

Gaztanbera egiteak eskualdean duen egoera ere errepasatu dugu, eta aipatu digu jatetxe gehienetan egiten dutela, eta beraz hemengo gaztanbera jan daitekeela. Fabrikak ere badaude, “Postres tradicionales Ultzama” eta “Goshua”, eta, azkenik, etxeetan ere egiten dela. Familia bazkariak eta halakoak egiterakoan gaztanberaz beteriko kaiku bat egiteko ohitura mantentzen dela dio, betidanik egin izan dela etxeetan, eta polita dela, azken 7 urteetan egin den bezala, era publikoan Ultzamako herri ezberdinetan erakustea. Horregatik balorazio positiboa egiten du Gaztanbera Eguna.

Gaztari ere begiratu diogu. Mahai gainean jarri du balitekeela Ultzaman ez egotea artzainik bere ardien saltzeko gazta egiten duenik. Imotz, Basaburua eta Anuen aipatu digu baten bat, baina Ultzaman baliteke ez egotea. Askok etxerako egiten dute gazta, edo ardi esnea saldu edo soroak garbitzeko ardiak dauzkana ere bada.

Alokairu soziala, oraingoan Jauntsaratsen



Alokatuak izateko prest daude Basaburuko udaletxean dauden bi etxebizitza. Muskizko Itsasonearen ereduari jarraituz, alokairu sozialean jarri dituzte, bailarako biztanleentzat. Hala ere, horretarako beharrik edo eskaerarik ez balego, alokairu “normalean” aterako lirateke.

Berritutako bi etxebizitza dira, udaletxeko bigarren solairuan kokatuak; bata 62,61 metro erabilgarri dituen, eta bestea 52,41 metro. Udalak, gizarte politikako batzordearen bidez, etxebizitzak erabilgarri jarri eta alokairurako bandoa publikatu du.

Hilabeteen 214,99 eta 213,46 euroko alokairua izanen dute hurrenez hurren. Izena emateko epea uztailaren 15era arte dago irekita udaletxean, eta bertan alokairu sozialerako baldintzak ere izanen dituzue.



Eskolak itxi, igerilekua ireki



Gogorrak egin zaizkie ikasle zein irakasleei ikasturteko azken egunak. Ekaina beroa izan dugu, baita igerilekuak ireki aurreko egunak ere. Hala ere, igerilekuen ateak irekita, laster batean joan dira bizilagun guztiak. Honekin batera, igeriketa ikastaroak ere hasi dira.

Oihanzabal ikastetxean, esaterako, urteroko D eguna klasetik kanpo ospatu zuten, basoan. Aurtengoan, “Arte efimeroa” gaia jarri zieten gurasoek, eta basoan eskuragai zituzten materialekin artelanak egin zituzten haritz ederren inguruan. Bazkalostean antzerkia ere izan zuten, gurasoek eta kazetariren batek eginda. Eta ikasleek ere antzerkiak egin zituzten azken eskola egunetan, parodia eder batzuk ere antzetzuz.

Batzuek Jauntsarastik Larraintzarrerako jauzia eginen dute datorren ikasturtean, eta beste batzuek Larraintzartik Iruñerakoa. Baina bitartean uda daukagu tartean, hau da, oporrak, igerilekua, udalekuak eta abar luze bat. Gozatu!

Eskola egunak ere amaitu dira, eta askok sanjuane-tako sutan erre dituzte ikasturteko paperak. Eta Larraintzarko zein Jauntsarasko ikastetxeetan azken eskola egunak ospakizunetan eman dituzte.

Haur eskola berria Jauntsaratsen



Basandereok emakume taldearen laguntza ere izan zuten, bai forma legala emateko bai diru-laguntzak eskuratzeko.

Urte hobeak eta okerragoak izan dira, urteren batean 16-17 haur izatera ere iritsi zen, baina baita gutxi batzuk besterik izan ez direnak ere. Imotzekin elkartu eta Etxalekura igaro zen Ttikienaren egoitza, Imozko udaletxera. Bertan egon da orain arte, eta datorren ikasturtean Basaburura bueltan izanen da.

Ekarpen ekonomiko garrantzitsua egin beharko du Basaburuko Udalak haur eskola eraikitzeko, baina diru-laguntzak ere jasoko ditu; eta, beraz, arazo handirik ez du izan urteko aurrekontuan ezartzeko. Kudeaketa eredia ez da oraindik erabaki, eta datorren ikasturtean orain arteko hezitzaileak egonen dira trantsizioa eginez, baina ikusi beharko da hurrengoan zer gertatzen den, Nafarroako Gobernuak kudeatuko balu lehiaketa publikora atera beharko litzatekeelako.

10 hurrekin hasiko da irailetik aurrera Jauntsarasko haur eskola berria. Oihanzabal ikastetxearen eremuan eginen dute, eta orain arteko izena mantenduko du, Ttikiena.

Aspaldi hasi zen haur eskolaren proiektua Basaburuan. Bere garaian ezin izan zen haur eskola eraiki Basaburuan, eta guraso talde batek haur eskola gisa funtzionatzeko gela bat lortu zuen.

Ttikiena izena mantentzea aho batez erabaki zuen guraso eta bestelakoen parte-hartzea duen batzordeak, eta 0-3 urte bitartean hezkuntza unitate bat posible egiteko behar zen kopurua bete da, 10 haur. Eremua Oihanzabal ikastetxearekin partekatuko dute, baina bi zentro ezberdindu izanen dira, legeak hala agintzen baitu.







Aza artean **yayo** nitzen

Ilarregiko Salbidegiko bordan izan gara. Mikaela Urtasun Iribarren alargunak hartu gaitu gozo-gozo. Eta laster azaldu da Martin bere semeetako bat, etxean izaten dena, ezindua, soldadu Gurutze Gorrian egiten ari zenean istripu baten ondorioz horrela aulkitxoan gelditu zena. Andre alaia, kementsua, eta lasaia, hori irudi zaigu behintzat guri. Elkarrizketa egiterakoan behar izan duenean bazkariari erreparatu eta Martin bere semeari ere ez dio begirik kendu. Maitasun keinurik ere ez da falta izan. Biek elkar ederki ulertzen dute, maitasuna ez da falta, ez horixe!



Mikaela eta Martin. Soldadugoa Belateko Gurutze Gorrian egiten ari zela, istripu larri bat izan zuen. Elbarria eta ezindua, beti amaren ondoan izaten da.

ESKOLA ETA KOMUNIOA

Eskolan noiz hasi ziñen?

Pues, nik izain nittuen, bortz edo sei urte. Sei urtetan in nuen primera comunión como buena...

A bai? Eta sei urtetarako ikasi ziñuen dotriñe?

Uhh! Euskeras ta erderas. Bieta. Ta apeza zen Don Pedro Iraizotz, Alkozkoa. Eta erraten ziren, zuk ikasta'uzu euskeraz ta erderas. Ta ni kontent, ta...

Zu noa yoaten ziñen eskolara?

Illarregire. Suarbekoak yoaten giñen Illarregire. Ta bide guzie etortzen giñen (Illarregira) lar goxoak (1) yaten. Orain auntzek yaten ttute.

Eskolara gustora?

Bai, gustora. Biño gue atte zena zen...eskola e'zakion ja inporta: gaur in biar duu orbela bildu, -eskolara yoan gabe- gaur in biarttuu harriek bildu -eskolara yoan gabe- arabak bildu bia'ute soroan -eskolara yoan gabe. Holaxe! Holaxe! Ja! Ja! Ja!

Aitei e'tzakion eskola inporta. Eta amari?

Amari, aitek iten zuenai, ixo! Ixildu.

Orduen aite ta ama oso ongi konpontzen ziren.

Bai, bai! Izain zittuten beren zerak, biño...

Lenbiziko jaunartzea zazpitan beharrean, sei

urtetan in ziñuen. Zer duzu oroimenean egun hartaz?

Bai, urte bat lenago. Ez dakit zer gise. E'tzela nere adiñekoik edo. Ni yoan nitzen normal bezittuik. Gure amari e'tzakion gustatzen. Gero ibiltzeko. Zenbaitzuk itten zuten eun hartako, puff! Hori gure amari e'tzaikon gustatzen.

Zenbat urtiak artio yoan ziñen eskolara?

Ez naiz oitzen, biño guti, hameka urte edo zerbatt hola. Ez ginen yoaten eskolara gero, bakunatu bear ziutelaik. Aitek erraten ziun, fuera! Naiko bakunetuik zaute zuek eta fuera, etxera!

Ja, je, ja, je...denon algara entzuteko modukoa izan da.

Hameka urtetan eskola utzi...

Bai, yustu yustuen eskribitzen ta leitzen ikasi...



Gurasoak lau umeekin. Joxe Jabier falta zaigu hemen

SALBIDEGIKO KONTUAK. AMBROSIO ELIZALDE SE-NARRA ETA UMEAK

Lau koñata ziren itxera sartu ziñen zu. Biño laster ezkonduko ziren kanpora?

Bai, badiore oraindik ezkondu ez direnak. Bide bizi dire Iruñen. Ni biño zaarraokoak dire biño.

Zenbat ume izan ttuzu.

Bortz. Bortzak ongi. Patxi, Mariangeles, Joxe Jabier, Martin, eta Ambrosio Mari (Mari).



Mari, lehen jaunartze egunean, serio. Duen nortasuna aspalditik datorkio.

Mari azkena, eta itxean amaren ondoan...

Mari gaztena. Ez giñuen nai. Biño eskapian torri zen. Orduen telebistaik eta, ez zen ja izaten ta. Jalja!ja! Eta orain? Hori faltatiko balitz, ze iñea'gu? Isilune luze bat egin du Mikaleak. Gogorapenak etorri zaizkio burura trumilka.

Nolakoa zen zure senarra zena?

Izain zittuen bere faltak, biño ni kontent, ongi. Biño erran ziren, hiltzen bazen errain zirela nolakoa zen bertze mundue, biño ez dire jare erran. Ja! Ja! Ja!

Elkarrizketa hau hasi aurretik erran direzu zure senarra eizilarie zela.

Bai, eiza denboran, erraten ziren goizetan: Deitziko tuzu beiek? -Zazi, zazi, inen'tut, -erraten nion nik. Hore eizera eta ni deitzen, eskuz!

Orduen laborea ziñuten batez ere.

Bai, garie, patata, albolba...Gero, bertze gauze bat:

Nire senarrak atratzen zuen añarra, azkar, ta itten zittuen isetsak ta saldu. Ta lotzeko larra. Larrak mozteten zittuen, ez dakit zein illergitan, moztu, partittu, sekatu, urian yarri. Ta eozein tortzen zen erostera. Biño ez dire erran, ez ongi dagon han ez gaizki dagon, ez jare. Ja, ja, ja!

Nekazarie, eizilarie, isetsak itten zittuen. Eta arrantza?

Baitare. Amorraiek ere majoak kartzen zittuen erro-tako erreka hortaik.

Lanera, kanpora ere atratzen zen?

Baitare, yoaten zen Eltaburure ere, epaitzek bajatzera ta, beiekin ta, beti lanian, beti-beti atratzen pezta bat. Beti hemen, Illerregi, Suerbe, Auze, Eltzaburu...

OPORRIK EZ BIÑO AMERIKETARA YOAN ZEN.

Ameriketara izan bide zara.

Arrazoi duzu. Marik sei urte zittuenian yoan giñen. Senar-emaztiak eta Mari, han dut nik nire anaie Martin, Martin semearen atautxie.

Martinek konbidetuik yoan ziñeten?

Bai bai, beti yoateko ai'zen erraten. Oai're erraten du.

Nora yoan ziñeten? Oitzen zara?

Ai ama! Los Angeles, San Francisco, nola da hori, hainbeste yokatzen den hori. A, bai, Las Vegas. Eman ziun anaiek. Arizonan ere bai, hangoa baitzuen andria nere anaiek. Hiru hillabete in gefittuen han. Eta eunero yoaten giñen noabaitera.

Beste mila kontu ere baditu baina akabera eman beharko diogu gaurkoz.

Aite kontrabandiste

Orduen, zuen aite, Andres, kontrabandiste izana

Bai, harrek bizi hobia eaman zun bai andriak biño. Aite kontrabandoan eta ama beatzi umekin, pentsatu! Jalja!ja! Oraikoei paatu zortzi o beatzi umekin. Ze iñen luteke? Je! Je! Je!

Konta zaiguzu kontrabando kontuez.

Aitzen zen kontrabandoan ehun kiloko zaku iriñekin eta. Kartzen zittuen ta gero saldu. Bein Frantzitik bei bet'e karri zuen ta itxan iduki zuen ta. Biño ez giñuen goseik pastu, naiko obi...Majo bizi giñen. Bein guardie zibilek torri ta miratu zuten itxa goitik bera. Biño ez zioten ja harpatu!

Nire aitek bazuen Elizondon guardia zibil'bet. Ta harrek botatzen zion eskue. Launtze! Ta hola eskapatzen zen.

Eta nondik nora kartzen zittuen paketiak?

Pues, aunditz aldiz, atratzen ziren aite ta nire aizpe zarrena, Angelita, Beuntzera. Ta yoaten ziren beiek lotu uztarrien ta karroakin. Ta kartzen zittuten mon-tonak, iriñek ta eozin gauze, karroan. Ta hemendik, tortzen zelaik norbait eske, ematen zuen. Oitzen naiz, Illarregitik, ematen zittuen Kokotxekoak eun kiloko iriñek ta.

HIZTEGIA

EMAN=eraman. Imotz aldean eta, yaman ibiltzen dute.

EPAITZE: Etxe bakoitzerako urtero edo markatzen diren arbola saila.

OHARRA: (1) Lar goxoak. Lar arruntaren eta otso-larraren punta berak (xamurrak) Ohitura hau oso zabaldua zegoen garai hartako umeen artean. Bazterretan gauza franko jaten zen orduan.



Pelikula bat nola egiten da? **Sandra** Iraizosi 3 galdera

Eltzotar gazte honen hurrengo proiektua film bat izanen da. “En un segundo tu vida cambia” liburua argitaratu ondoren, Hegoamerikara bueltatuko da bertan lan egitera.



berean ezin direnez hartu, aurrerapenak hemen eginiko produkzio batean baino motelago joaten dira; halere, bizitzen ari naizen guztia sinestezina da, lan egiteko beste modu batzuk ikasten ari naiz (Hego Amerikaz pobreako dela esan ohi da, baina errealitatea bestelakoa da, kulturen gehiago eta hobe inbertitzen baita); oso jende interesgarria ezagutzen eta zinearen alde humanoena ikusten ari naiz (txikitatik honenbeste erakartzen ninduen zati horretan ez sinisten hasia nintzen).

Finkatuak dituzu epeak?

Ekipoko kide baten senidearekin arazo bat sortu da, eta gizakiak garenez, data batzuk atzeratu egin ditugu denok ongi egoteko; ez gara makinak, lehena pertsona da.



Zertan da proiektua?

Gidoiaren lehen fasea bukatuta dago. Orain, uztailean gidoigilea, zuzendaria eta hirurok bilduko gara erroldaren eszena tokiak, balizko aktoreak, aurrekontu erreala, eta beste, gidoia zehazteko.

Hego Amerikan pelikula bat filmatzea, nolakoa da prozesua?

Prozesu arraro samarra izaten ari da. Bilerak Skypez egiten ditugu, normalean gauez (ordu-tegi diferentziagatik) eta, erabaki batzuk unean

Nolakoa izaten ari da sormen lana?

Horixe izan da, beharbada, deigarriena suertatu zaidana. Erabaki gehienak aho batez hartzen ditugu, hirurok (zuzendariak, gidoilariak eta hiruok) ados egon behar dugu pauso bakoitzean, eta, bestela, ez dugu pauso hori ematen. Zuzendarien ustez, ekipo on bat osatzeko denek gustura lan egin behar dute, horrela pausoak emankorrak izaten baitira; beraz, denok ematen ari gara dugun onena proiektuaren alde, eta helburu bera-ekin, ahal den produkturik onena egitea mezua ahal den jende gehiagorengana iritsi dadin.



Hemengo informazioa
www.ametza.eus

Itsasotik Itsasora

Gipuzkoako Itsasotik Basaburuko Itsasora egin zuten txangoa bertako 56 lagunek

Istoria polita iruditu zitzaigun jabetu ginen momentu beretik, istorio xumea, baina interesgarria eta polita: Alde batetik urtero Gipuzkoako itsasoarrek txango berezia egiten dute bertako auzolanetan aritzen den jendea saritzeko. Izen berbera duten herriak bisitatzen dituzte, hau bitxikeria! Bestetik, Itsasoren kasua ezagun egin zen duela pare bat urte, Ezkio herritik sakabanatzeko prozesua hasi zutenean. Herri horretako alkate den Gorka Itsasietarekin hitz egin dugu, abizen bitxia ere, dediola...



Txangoa

Badira bost urte Lapurdiko Itsasura egin zutela bisita itsasoarrek eta oraingoan Basaburura hurbildu dira bertako Itsaso eta bere inguruak ezagutzeko; igandean harrera bikaina eta egun hunkigarria igaro zuten. Herriko blogean argitaratu zuten kronika: "Deialdiaren erantzuna ezin hobea izan da, guztira 56 bizilagunek parte hartu zuten igandeko txangoan.

Lehenengo geldiunea Jauntsaratsen egin, eta bertan Kisulabeko Haritza inguratu zuten; jarraian, Orokietan Eusebio Ezkurraren etxea, belardiak eta esne-behiak zein oiloak ikustera, eta ondoren Itsasoko bidea hartu zuten. Bertan, harrera ezin hobea: Mari Jose Marinelarena alkateak eta Kontzejua osatzen dutenez gain, Miguel Mari Iriarte eta hainbat bizilagunen ongi etorri beroa ere jaso zuten. Hantxe zegoen guztiendako hamaiketakoak prest.

Herria eta bere txoko guztiak ezagutu ondoren, oroigarri bat eman zieten opari bertako itsasoar lagunei: Pott Keramikak isats landarearekin eta Xabi Elgarrestaren bertsoarekin eginiko plaka hain zuzen. Bertsoa guztiek elkarrekin kantatu zuten, hunkiturik.

Bertsoa

*Itsasotikan Itsasoraino
isats landara tarteko
bi herri txiki elkartu gera
itxuraz nahiko antzeko
etxan bezela sentitu gera
ezin liteke hobeto*

*bada garaia denon artean
isats erratzak sortzeko
sorginen gisa ibil ditzagun
guk alkar bixitatzeko*

Jauntsaratsen bazkaldu ondoren Etxalekun egin zuten geldialdia, Imozko udalerri burua, kontzejuz osatua. «Herri zoragarria, zirrikitu guztietatik begiratuta. Sagrario Aleman euskaltzainarekin ere elkartu gara», zioten. Amaitzeko Erasora gerturatu ziren, Xabier Iturriotzek duen zapata tailerra ezagutzeko, eta honen tailerraz gain, Unai Otegik musika tresnak egiten ditu. Egun bikaina!

Izenarekin, gorabehera

Gorka Itsasieta: "2012an Lapurdiko Itsasun izan ginen eta aurten, 2017ko maiatzaren 21ean Nafarroako Basaburua bailarako Itsason. Guztiok geure herriek duten isats landare izenaren etimologiak elkartzen gaitu. Baita Itsasondok duenak ere".

Independentzia!

Ezkio eta Itsaso herriak 60. hamarkadan elkartu zituen frankismoko gobernuak. Urte luzez berdin mantendu badira ere, mende berria ailegatu zenean "ilusioa piztu eta indarra hartu zuen banaketa lortzeko prozesuak". Gorka alkateak kontatu digu arazorik gabe egin zutela prozesua Gipuzkoan, baina estatu mailan ukatu dietela sakabanatzea: "Izen ematea ukatu ziguten. Guk Madrilan eskaera egin genuen eta orain epaitegietan sartua dago prozesua, halere, herri independente gisa funtzionatzen ari gara".

IRANTZU LEGARRA, GARTZARONGOA ETA ARTISAUA:

“Oso *pozgarria* da eta aurrera jarraitzeko animoa ematen du zuk egindakoa jendeari *gustatzen* zaiola ikusteak”



Zergatik hasi zenuen proiektua?

Urteak neramatzan barra baten atzean lan egiten, aldatu nahi nuen eta langabezia kobratzeko neukala aprobetxatuz proiektu honetan murgiltzea erabaki nuen.

Beti gustatu zait jostea, txikitatik panpinei arropak eta soinekoak egiten nizkien. Gero institutu garaitik aurrera lagun batzuekin geratzen hasi nintzen josteko, baina beti eskuz, makinarik gabe, gonak, karteratxoak eta poltsak egiten genituen eta oso ongi pasatzen genuen, gustura aritzen ginen. Eta orain dela bi urte, jostun taldetxo bat Aizarotzen elkartzen hasi ginen pixka bat ikasteko eta gauzak egiteko, orduan makina erosi nuen.

Hortik aurrera poliki-poliki mundu honetan nire kabuz murgiltzen hasi nintzen. Interneten dauden tutorialen bidez gauza asko nola egiten diren ikasi dut, eta hortik aurrera nire irudimenari esker gauza berriak sortzen joan naiz. Zentzu horretan nahiko autodidakta izan naiz.

Zer moduz doa?

Oso pozik nago, gustatzen zaidana egiten ari naizelako. Beti ere hasierak nahiko zailak izaten dira, baina egiten ditudanak jendeari asko gustatzen zaizkio, eta horrek indarra ematen dit.

Zertan espezializatu zara?

Gauza asko egiten ditut, eta oso ezberdinak. Orain oihal afrikarrekin txoratua nabil, asko gustatzen zaizkit. Motxilak, mandarrak, nezeserrak, estutxeak, adur-zapiak, poltsak, oihalekin apaindutako koadernoak, jaio berriendako sortak, ilerako apaingarriak....egiten ditut.

Enkarguak ere hartzen ditut, jendeak gustuko duen oihala aukeratu eta hortik aurrera lan egiten dut.

Azoketara eta halakotara joaten zara, funtzionatzen dute sare horiek?

Bai, aurten gehiago mugitzen ari naiz, batez ere inguruan antolatzen diren ferietara joaten. Oso aukera ona da nire lanak ezagutzera emateko eta daukaten harrera ikusteko. Oso *pozgarria* da eta aurrera jarraitzeko animoa ematen du zuk egindakoa jendeari gustatzen zaiola ikusteak.

Badaude beste sare mota batzuk ere, hain zuzenekoak ez izan arren baliogarriak direnak nire lanak ezagutzera emateko. Nik Facebook orrialde bat egin nuen jostun lanak erakusteko, Josthari izenekoa. Nire ingurutik harago ere egindako lanak ezagutzera emateko aukera ematen dit.



Eskuekin lanean... lasai-lasai, ongi sentitzen zara josten? Gomendagarria al da?

Oso gustura egoten naiz, nire txokoan sartzen naiz eta hor ematen ditut orduak josten, pentsatzen, diseinatzen, oihalak aukeratzen eta ikasten. Gomendagarria? Bai, noski! Ahal izanez gero, bakoitzak gustuko duen horretan aritzea guztiz gomendagarria da.

Ez dut entendatzen



Ttikia nintzen, kozkorra nintzen eta handia nintzen. Elizan ebanjelioa irakurtzen zuenean apezak, zenbait aldiz Jesukristo jendeari predikatzen ikusten genuen. Gauzak zuzen-zuzenean azaldu beharrean, parabola bidez azaltzen zien: «Atera zen behin ereilea hazia ereitera...» Eta hala bukatzen zuen irakurketa apezak: «... begiratu bai, baina ikusten ez dutelako; entzun bai, baina ez aditzen, ez ulertzen ez dutelako»

Mixel Labeguerie, euskal kantari famatua eta euskaltzale amorratua; eta frantses politikaria.

Beti izanen du gure eskerrona eta dotorean aritzen zaigu astero telebistatik. Maisua.

Agintari eta farisearez ari zen.

Eta azaltzen zuenez, farisearrak oso lege-zaleak ziren, legeak, aginduak, zerrendak... horiek bai ulertu, baina haur edo helduen kontuak, ipuinak, parabolak, dirudienek ez zituzten ulertzen.

Ez du denbora anitz kazetari euskaltzale batekin egon nintzela, zutabeak idazten dituzten horietako bat zen, Euskal Herriko kontuetaz, eta horrela esan zidan: *lehen zeharka, literatura eginenez azaltzen nitian gauzak eta konturatu nukeen jendeak ez zituela ulertzen. Orain zuzen-zuzena, handienak, zuzen-zuzen botatzen ditiat, ea konprenitzen duten.*

Orain ere, ikusten denez, eskolatu eta farisear asko zegok bazterretan, eta entendatzen ez.

Beharbada, parabolak ibili orde, nik ere zuzen zuenean esan beharko nituzke kontuak, literatura guztia paperontzira botata. Eman dezagun, euskararen transmisioan dagoen hausturaz, dagoen zabarkeriaz edo dagoen axolagabekeriak zerbait esan nahi dudala. Ba, zapla esan beharrekoa

bota eta kitto, norbait mindu edo pipertzen bazait ere.

Nolanahi dela, gaur euskal *kanta berriko* aitatxiren kantu bat ekarriko dut, zuzen zuzena dena, orain 60 urte bezal-bezala kanta dezakeguna. Mixel Labeguerie zen euskal kantu modernoaren aitzindaria eta hona nola kantatu zion guraso bati (askori):

Aita, zer egin duzu eskuara maitea?

Erderan hazi duzu oi zure semea.

Ontasun ederrena aita batek galtzea.

Biotzean sartua dugu ahalgea.

Orain 60 urte kantatzen zian Labaguerie kanta-riak eta orain ere balio dik hiretako: Unai, Fermin, Pello, Mattin...

Bai, zuen guziondako da gaurko ardo mikatz hau. Ni banoa aldameneko ostatura, haurrak euskaraz hazi dituen Jabier adiskidearengana ardo frexkotik baso bat edo bi, klaska, edatera.

Izan ontsa!

HIZTEGIA

Zutabea: *columna*

Transmisioa: *Gurasoengandik umetara igarotzea euskara*

pasatzea. Euskaraz haztea eta hezteak..

Aitzindaria: aurrena dabilena.

Ahalgea: lotsa



TXURDAN

1. Nahi al duzu nafarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea?
2. Hala bada, nahi al duzu Euskal Herri burujabe bateko imoztarra / basaburuarra izan?



Txikiok ere **erabaki**!

Erabakitzearen aldeko lehendabiziko olatua pasatu da Nafarroan, oso emaitza adierazgarriekin Bortzirietan, Sakanan, Mendialdean, baita Imotz eta Basaburuan ere. Guztira 7.781 herritarrek eman dute bozka aipatutako eskualdeetan, deituta zeuden %28,73ak. Udazken aldera beste galdeketak-olatu bat iragarrita dago eta jadanik motorrak berrotzen hasiak dira zenbait tokitan.



Basaburua eta Imotzi dagokienean, 255 bozka jaso ziren Jauntsaratsen (%36,1) eta 149 Etxalekun (%40,7), osotara 404 bozka, bi bailaren %38,4a beraz. Oso kopuru pozgarria da gainontzeko emaitzekin alderatzen badugu, eta Gure Esku Dago Basaburua-Imotzetik egondako parte hartzea eskertzen dugu. Sinadura bilketan jasotako babesak mantendu dela esan dezakegu, Zorionak!

EMAITZAK


UDALERRIAK	BOTO- EMAILEAK	BAI				EZ	BALIOGABEAK/	ZURIAK/
			BAI	EZ	ZU			
IMOTZ	149 (%40,7)	134 (%89,93)	119 (%79,86)	15 (%10,06)	0	1 (%0,67)	11 (%7,38)	3 (%2,01)
BASABURUA	255 (%36,12)	252 (%98,82)	234 (%91,76)	5 (%1,96)	13 (%5,09)	1 (%0,39)	0	2 (%0,78)
GUZTIRA	404 (%38,4)	386 (%94,38)	353 (85,81)	20 (%6,01)	13 (%2,55)	2 (%0,53)	11 (%3,69)	5 (%1,4)



Jasotako babesa eta partaidetzarekin kontent egon gaitzeko, halakoetan izaten den parte hartzea ez delako sobera altua izaten batetik, eta bestetik gurean bizi dugun aktibotasun falta horrek ez digulako gure konfort gunetik ateratzen uzten. Esan beharra da bidean denetatik topatu dugula, galdeketa zilegitasuna ematen ez zioten hoiak, sentsibiltate politiko guztiei zuzendutako ekimen bat izan arren ideologia eskuindarreko askoren parte

hartze eza, gaian interesa erakutsi ez duten herritar dexente (adina dela, ezjakintasuna dela) ...

Baina, dudarik gabe, sorpresak izan dira nabarmendu direnak; hamasei urtekoen ilusioa, bizitza osoan momentu honen esperoan egondako jendea, erabakitzea eta iritzi ematea oinarritzko eskubidea dela deritzoten apolitikoak, pentsamolde desberdineko jendearen batura, herritarren esker ona, bi udalen atxikimendua, eta abar luze bat.



Argi eta garbi dago herritik herriarentzat sortutako dinamika bat izan dela, egindako lan guztiak fruituak eman dituela, eta traba guztien gainetik, hasiera batean gure mikromundu honetan egingarria ez zirudiena posible egin dugula, gisa honetako egitasmo bat aurrera ateratzeko gai izan garela, Nafarroako beste alderdi askorekin batera.

Gure txikitasunetik eta elkarlanean pisu handiko ekimenak burutu ditzakegula erakutsi dugu eta guzti honek etorkizuneko dinamika gehiago antolatze bide eman digu. Imotzen eta Basaburuan erabaki dugu!



Sega **saioa** Udabe-Beramendiko soroan

Almitza segalari elkarteak antolatutako 8. Euskal Herriko Sega Liga amaitu da. Udabe-Beramendiko saioarekin eman zitzaion amaiera, bertan hirugarren jardunaldia izanik, Zaldibiako eta Lazkaoko saioen ondotik.



Almitza segalari elkarteak antolatutako 8. Euskal Herriko Sega Liga amaitu da. Udabe-Beramendiko saioarekin eman zitzaion amaiera, bertan hirugarren jardunaldia izanik, Zaldibiako eta Lazkaoko saioen ondotik.

Euskal Herriko segalaririk onenak aritu ziren lau mailatan jokatu. Emakumezkoetan Ainara Otamendi izan da txapeldun, Alaitz Imaz, orain arteko liderra garaituta. Gizonezkoetan, ezustekorik gabe Julen Gabirondo izan zen nagusi Basaburuan eta aurreko saioetan ere, beraz berarentzat txapela. Arrarasko Mikel Berekoetxea aritu zen saio honetan, eta hamabigarren sailkatu zen. Gaztetxoetan Maider Garmendia eta Arkaitz Gabirondo izan ziren irabazleak.

Jende ugari hurbildu zen, eguraldia lagun, lehiaketa izan zen sorora, Basaburuarrak zein Euskal herri osokoak. Euskal Herriko txapelketa izateaz gain, Europako txapelketarako sailkagarria ere bazen, eta zoritxarrez guk ez dugu inor izanen Suitzan, Ingenbohl herrian abuztuaren 18tik 20ra jokatu den txapelketan.

Mikel Beunza **garaile** Berroetan

Ekainaren 18an burututako Berroeta-Abartan-Saioa lasterketan txapeldun izan zen Mikel Beunza ultzamarra. Alkozko mutilak 1 ordu eta 44 minututan egin zuen Berroetatik Saioako gainerako bidea, bigarren sailkatuari bi minutu aterata. Denboraldi ona darama Beunzak, podium batzuk egin ditu, eta oraingoan garaipena iritsi zaio.

Emakumezkoetan garaipenetik gertu geratu ziren eskualdeko bi korrikalari. Arraizko Lucia Oskoz bigarren izan zen, eta Erripako Letizia Altuna hirugarren. Dena den nagusitasun handiz gailendu zen Ana Reina lesakarra.

Maila bikaina erakusten ari dira Ultzama aldeko kirolariak mendi lasterketetan, eta gertutik jarraitu beharko ditugu, garaipen gehiagoren esperantzarekin.

MIKEL BEUNZAREKIN HITZ EGIN DUGU:

Azkenaldian sailkapen onak lortzen ari zara, eta azkenean iritsi da garaipena, zer moduz?

Poz handia izan da. Ilusio berezia egin zidan, Saioa askotan igotzen dudan mendi mitikoa baita.

Ematen du modan dagoen kirola dela mendi lasterketena, zein iritzi duzu?

Egia esan, korrika egitea da, orokorrean, modan dagoena. Niretzat, lasterketak beste jendearekin indarrak neurtzeko modua dira, eta kasu honetan, leku ederretan barna, mendian.

Ultzama leku ederra da mendian korrika aritzeko, zein leku gustatzen zaizu gehien?

Bai, leku on batean bizi gara horretarako, Alkozetik Belate aldera doazen mendietan ibiltzen naiz ni asko, baina San Donato aldera joatea ere asko gustatzen zait.

Mendi lasterketetan distantzia ugari daude, zein gustatzen zaizu gehien?

Kilometro bertikala gustatzen zait gehien, goraka korrika egitea gustatzen zait.

Helbururen bat duzu buruan?

Uda amaituta zenbait kilometro bertikal lasterketa daude, baina bereziki Intza-Ttuturreko Nafarroako txapelketa eta Anbotoko Euskadiko txapelketa ditut helburu bezala.


Nola hasi zinen mundu honetan?

Asfaltoan egiten nuen korrika lehen, eta mendia gustuko nuenez mendi lasterketa bat probatu nuen, eta horrela hartu nion afizioa.



XVI. mendea: Nafarroan euskara nagusi zen garaia

Aspaldiko kontua da hau. Zein da Nafarroako hizkuntza? Nafarroan euskara noraino ailegatzen zen? Noiz artio hitz egin da han edo hemen? Zenbateko inportantzia izan du?



Esan genezake Nafarroan euskararen inportantzia ukatu egin dela zenbait historialarien lanak ikusten baditugu. Jakina, artxiiboak gain-gainetik begiratu, eta bai, den-dena erromantzez edo gaztelaraz idatzirik dago. Euskaraz deus idatzirik nekez topatuko duzu. Eta lehenbiziko begirada horrek balio izan die zenbait euskararen hedapena, indarra eta inportantzia ukatzeko. Euskarazko idatzirik ez izatean pentsatu izan dute errazena: hemen erdaraz mintzatu izan da, den-dena erdaraz idatzia baitago.

Baina, aspaldian atera izan dira bestelako azterketak ere, euskarak ez dakit noiz artio iraun zuela Iruñean, Oliteraino hitz egiten zela ez dakit zein mendetan. Batek eta bestek kontu horiek atera dituzte, liburu eta artikuluetan.

Baina orain Peio J. Monteano Sorbet Atarrabiako historialariak atera du liburu eder bat, *El Iceberg navarro*. Euskera y castellano en la Navarra del siglo XVI deitua.

Monteanok anitz lan badiu honetaz eta hartaz idatzia. Batez ere Nafarroako konkistaz. Historialari trebea, zaildua, nekagaitza artxiboen arakatzen... Aspaldi bagenekien euskararen historiaren inguruan liburu bat idazten ari zela, baina, benetan, harritu gaitu harilkatu duen liburuak: datu pilaketa, froga eztaba daezinak... eta den-dena erraz irakurtzeko gisan. Historia pila bat, protagonista anitz, egoera zailak... Iruñean euskara, gure hizkuntza sendo-sendo Nafarroako erdialdean. Administrazioan izan zuen lekua,

Elizak eman zion balioa...

Egoera zailak, Nafarroaren konkista eta menperatzea, erlijio borrokak, sorginen kontrako auziak...

Eta protagonista mota guztietatik: errege eta menpeko, kapare eta herritar arruntak, obispo eta apez soil, sorgin eta santu...

Denetaz baliatzen da autorea ur garbia ateratzeko. Nafarroako euskara hor izan dugula frogatzeko, herraren gehiengo euskaldun hutsa zela azaltzeko. Eta aldi berean irakurgarria eta atsegina egiteko.

Eta Nafarroako zoko guztiak begiratu ditu, sortaldea eta sartaldea, Nafarroa Behera eta Erribera, Iruñea eta Erreinu zaharreko herri ttikiena. Osotasuna emateko kontatzen duenari.

Eta gure alderdia ere behin baino gehiagotan ateratzen da historia honetan, has Anotzibartik eta, buka ez dakit non: Oskotz, Igoa edo ez dakit zein herritan. Uste ez genuen hainbat ondorio atera dizkigu Monteanok lan honetan: funtzionarioak ia denak euskaldunak zirela, edo nafartarren 10tik 7 baino gehiago euskalduna zela. Edo nafartarren erdiak gaztelaraz tutik ere ez zekiela.

Edo, zer esan, Euskal Herriko euskaldunen erdiak Nafarroan bizi zirela esaten badizugu? Zerbaitengatik dio Monteanok Mundu euskaldunaren gotorlekua Nafarroa zela.

Izena: *El Iceberg navarro*. Jakina izebergaren zati ttikiena da ikusten dena, uretik kanpo dagoena, baina ur azpian dagoena, gure begietatik at dagoena da aise handiena. Horrela pasatu da gure hizkuntzarekin, ikusiezina izan da baina ongi arakaturaz gero, argi dago Nafarroako hizkuntza hedatuena eta mintzatue-na euskara izan dela.

Eta guk gehituko genioke, oraindik bizi den bertako bakarra.

Bai, atseginez irakurri dugu, ez dago esan beharrik. Eta edozeinek ere irakur dezakeena. Zorrotza, zehatza, atsegina eta jakin beharrekoa, gehiago gaurko egunean entzuten diren zenbait gauza entzun behar izan ondoren.

HIZTEGIA

Mendea: *Gizaldia (siglo)*
Erromantzea eta gaztelera kasu honetan bera da.
Azterketa: *investigación*
Arakatu: *miatu*
Harilkatu: *ovillar, devanar*

Kapare: *noble*
Sortaldea: *Este*
Sartaldea: *Oeste*
Nafarroa Behera: *Baja Navarra*
Gotorlekua: *fortaleza*



Urtebetetzeak



LUR



NARE



IOSU



BIDALI ZURE
ALBISTEAK, ARGAZKIAK,
TXUTXU-MUTXUAK, JAIOTZAK...
pulunpe@gmail.com
HELBIDERA



Edalontzi berrerabilgarria

estrategia zabalago baten pausu bat

Azken asteetan egunkari eta sare sozialetan zabaldu zen istorioa: Sanferminetara begira, Udalak plastikozko edalontzi "ekologikoa" erabiltzeko ekimena aurrera eramane nahi du. Eskuin muturreko hedabideek neurria kritikatu bazuten ere, jai eremu alternatiboetan aspaldi ikusi den neurria dugu hau. Batzuen iritziz inposizioa eta besteen ustez pausu txikiegia... Aditu batekin hitz egin nahi izan genuen egoera argitu nahian eta, hau ezustea, Burutaingo Camino Jaso Iruñeko Udaleko Hiri Ekologiako zuzendaria dela jakin genuenean!



Oso lanpetuta dabil azkenaldian Camino, bileratik bilerara salto eginda, eta azken momentuan izan dugu aukera berarekin hitz egiteko, baina oso kontu interesgarriak aipatu dizkigu. "Ekimen hau 2015. urteko gabon zaharrean apal-apal hasi bazen ere, Alde Zaharreko Egunean eta iazko Sanferminetan probatuz joan da".

Aurtengo intentzioa jai gune desberdin eta taberna askotara zabaltzea da. Baionako jaietako garbiketa eredua jarraitu nahi dute: "Askotan joaten naiz bikotekidearekin jai horietara eta harrigarria da zeinen garbi dagoen, ez duzu edalontzi bat bera ere lurtean ikusten!". Jasok komentatu digu lehengoan bertako kargu bat etorri zela Iruñera eta azpimarratu ziela Sanferminetan hobekuntza lortu ahala, nazioarteko oihartzuna izan dezakeela: "Halakoetan, domino efektua sortzen da: hiriarren irudia hobetzen da, jendeak latak eta halakoak zakarrontzietara botatzen ditu...".

Halere, aldaketa hauek gauzatzeko bidea legeekin ere badute zerikusia, eta lanean ari dira hondakin ordenantza bat onartzeko: "Oso garrantzitsua da legedi hori aurrera ateratzea; arauak guztiok betetzeko dira, eta ez dago salbuespenik". Caminok onartu digu batzuetan "Kixote" konplexua dutela, baina behetik gora ematen diren aldaketen indarra ere onartu du: "Egia da estatuko gobernu honekin gauzak zailagoak direla, baina orain Nafarroako Hondakin Plana onartuko da eta horrek, behintzat, gehiago babestuko gaitu".

Hurrengo pausuak

Txozna eta herri giroko jai eta jaialdietan edalontzi berrerabilgarria aspaldi jarri zen praktikan, eta galdetu diogu Caminori etorkizuneko neurriei buruz. Hondakinen ordenantza berri hori aurrera ateratzeko oraindik hilabeteak geratzen direnez, zenbait zertzelada eman dizkigu: "Plastikozko poltsen aurka joatea izango da gure hurrengo pausua".

Edukiontzia gutxitzea da helburu: "Memoria eginda gogora datorkit txikitan dendara esne botila hutsarekin joaten zinenen edota gurditxoarekin erosketak egitera... Pausu txiki baina praktikoa da oihalezko poltsak erabiltzea erosketak eramateko.

Herri eta hiri sostengarriak lortzeko bidea luzea eta zaila bada ere, guztion helburu bihurtu behar dugu, ezker edo eskuin, urdin edo gorri, ez du inporta, guztiok lur bereberean bizi baikara.

Espero dugu heldu diren urteetan halako dozenaka ekimen ikustea eta praktikan jartzea, bestela ekainean ia 40 gradura egotea edota sekulako suteak izatea guztiz normala izango dugu, bai, baita gurean ere.

UDARAKO IRAKURKETA GOMENDIO BAT EGIN NAHI DIZUEGU: "LA SITUACIÓN DEL MUNDO 2016. CIUDADES SOSTENIBLES, DEL SUEÑO A LA ACCIÓN". LIBURUTEGIETAN DUZUE ESKURAGARRI.



2017ko apirila

Gure alderdian, **apirilean**
izan ziren
jaiotzak, ezkontzak eta
heriotzak:



Unaiek poza gainezka ekarri du

JAIOTZAK

IMOTZ
URRITZA

Unai Arano Iriarte, Martin eta Blancaren semea,
2017ko apirilaren hiruan jaioa, *Mikelenean*.

Ongi etorri jaio berriari eta zorionak beren gura-soei!

EZKONTZAK

IMOTZ
ETXALEKU

Maite Irigoien Arribillaga, Etxalekuko *Latarikoa* eta
Duma Pino Rica, Iruñekoa, 2017ko apirilaren 29an

ezkondu ziren

Mila zorion ezkonberriei.

HERIOTZAK

ATETZ
BEUNTZA

Doroteo Goldaratz Orrio, apirilaren 8an, *Matxinean*.

ULTZAMA
Auza

Nieves Nuin Gorosterrazu, apirilaren 16an, *Malle-
nean* edo *Olioren etxean*.

Gure oroimenean izanen zarate.

ALOKAIRU SOZIALERAKO BI ETXEBIZITZA JAUNTSARATSEN

UDALETXEKO 2. PISUAN

- ✓ Informazioa eta baldintza plegua Basaburuko Udalaren bulegoan eskuragarri.
- ✓ Telefonoa: 948 503035 (9:30-13:30)
- ✓ Izena emateko epea, uztailaren 15arte.



NEUMÁTICOS BETELU**Juan Alonso Ortiz**

Tailer mugikorra

Pneumatikoen aldaketa

Zulaturako pneumatikoen konponketa

Erdiko karrika, 8A

Aizaroza (Basaburua)



info@neumaticosbetelu.es

646 47 41 66

- Zuk nahi duzun tokira joango gara zure pneumatikoak konpontzera
- Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak
- Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

**629 31 53 32 - 722 766 835****Lizaso****karikolaregoitz@gmail.com****DABID ELIZONDO PINTURAK****DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA****TEL.: 678 623866****argapin@hotmail.com****ZIAURRITZ**

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe



